PYRENAICA

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA | FEDERACIÓN VASCA DE MONTAÑA

TRESMILES DE LOS PIRINEOS

Baztango errotak | Castillos y Reino de Navarra | Calnegre y Calblanque | Menditxiki: Muela
Damodar Himal | Mont Blanc | Selva de "El Petén" | Montañas de Gales | Iker Pou
Midi d'Ossau | Australiako eskaladaren ortzadarra | Camino olvidado y Transcantábrica en BTT
Itsastarrak Mendi Taldea | CVCEPHOTO | Ángel Landa

Nº 280 | 3ª DE 2020 | 5,10 €

1926tik | desde 1926

PYRENAICA Nº 280 | 3a de 2020 TRESMILES DE LOS PIRINEOS | BAZTANGO ERROTAK | CASTILLOS DE NAVARRA | MURCIA | DAMODAR HIMAL | GALES | MONT BLANC | IKER POU

Suscríbete a / Harpidetu zaitez

PYRENAICA

Año 2020 (4 números / zenbaki)

Prezioa: **18€**

Ingresa el importe en
la c/c ES24 3035-0072-00-0720030006 de Laboral Kutxa
y envía a contacto@pyrenaica.com:
Nombre, domicilio, teléfono y correo electrónico.

Laboral Kutxako ES24 3035-0072-00-0720030006 k/k
dirua sartu eta
contacto@pyrenaica.com helbidera bidali:
Izen deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

LEHIAKETAK · CONCURSOS

XXXVII CONCURSO DE ARTÍCULOS DE MONTAÑA (2020)

Participan los artículos en euskera o castellano que se publiquen en Pyrenaica durante 2020, seleccionados entre todos los recibidos. Los artículos han de aportar novedades sobre lo publicado en cualquier medio y ajustarse a la normativa de Pyrenaica (ver en www.pyre-naica.com).

Primer premio: 500 €. Segundo premio: 350 €. Tercer premio: 200 €

XXXVII MENDI ARTIKULUEN LEHIAKETA (2020)

2020an zehar Pyrenaican euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako artikuluek parte hartuko dute. Artikuluak originalak izatea baloratuko da eta Pyrenaicaren arauekin bat etorriko dira (ikusi www.pyrenaica.com).

Lehen saria: 500 €. Bigarren saria: 250 €. Hirugarren saria: 150 €

XXXVIII CONCURSO DE FOTOGRAFÍA DE MONTAÑA (2020)

Participan las fotografías que se publiquen en Pyrenaica durante 2020, excepto las que for-man parte de artículos. Se enviarán como máximo cuatro fotografías digitales no publicadas en otro medio. Tamaño: 18 cm en su lado más largo. Resolución: a 300 ppp/dpi, espacio de color RGB. Formato de archivo: jpg. No se interpolarán los archivos ni se añadirán máscaras de enfoque.

Primer premio: 350 €. Segundo premio: 250 €. Tercer premio: 150 €

XXXVIII MENDI ARGAZKIEN LEHIAKETA (2020)

2020an zehar Pyrenaican argitaratuko diren argazkiek parte hartuko dute. artikuluetan agertzen direnak izan ezik. Gehienez lau argazki bidaliko dira beste komunikabide batean argitaratu gabeak. Tamaina: 18 cm bere alderik luzeenean. Erresoluzioa: 300 dpi-tan, RGB kolore-espazioa. Artxibo-formatua: jpg. Ez dago artxibategiak tartekatzerik ezta en-foke-maskarak gehitzerik ere.

Lehen saria: 350 €. Bigarren saria: 250 €. Hirugarren saria: 150 €

ENVÍO DE ARTÍCULOS Y FOTOGRAFÍAS

INCLUIR: Nombre y Apellidos del autor/a, dirección, email y tfno de contacto.
ENVIAR A: contacto@pyrenaica.com (Asunto: Concurso Pyrenaica) o a: Pyrenaica. Julián Gaiarre, 50-trasera. 48004 Bilbao.
Los trabajos recibidos quedarán en propiedad de Pyrenaica y no podrán publicarse en otro medio hasta su devolución. Los premios se entregarán en la Gala del Montañismo Vasco de 2021. La participación en el concurso implica la aceptación de estas bases; las dudas serán resueltas por el Jurado.

ARTIKULU ETA ARGAZKIEN BIDALKETA

Izen-deiturak, helbidea, e-posta eta harremanetarako telefono zenbakia.
BIDALI: contacto@pyrenaica.com (Gaia: Pyrenaica Lehiaketa) edo: Pyrenaica. Julian Gaiarre, 50 trasera. 48004 Bilbo.
Aurkeztutako lan guztiak Pyrenaica aldizkariaren jabetzapean geratuko dira, beste edozein hedabidetan argitaratzerik egongo ez dela, harik eta itzuliak izan arte. Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa 2021ko Euskal Mendizaletasunaren Galan egingo da. Lehiaketan parte hartzeak berak, honako oinarri hauek onartzen direla adierazten du. Oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantzak Epaimahaiak ebatziko ditu.

JAKINARAZPENAK LARRIALDIETAN

Gaur egun, teknologia hau dugu eskura:

TELEFONIA MUGIKORRA. KOMUNIKATZEKO SISTEMA ONENA DA.

- 112 zenbakira dei daiteke, edozein operadorerekin, nahiz eta gurea ez izan, baita saldorik gabe ere, baina inoiz ez telefono-estaldurarik gabe.

- Larrialdietako alerta-aplikazioak. Deskargatu 112 SOS DEIAK aplikazioa, https://www.youtube.com/watch?v=rqxcTGwWQ_0

IRRATI-TRANSMISOREAK:

- **UHF:** (446 Mhz) erabilera libreko **PMRak (Irrati Mugikor Pertsonala),** lizentziarik gabe. Irismen-mugak, gehienez 5 km. **Mendiko kanala 7-7**.

- VHF: (144 eta 146 Mhz arteko frekuentziak), walkie-talkie deritzenak, igorleak eta hartzaileak. Irrati-amateurraren lizentzia behar dute, eta azterketa egin behar da eta tasak ordaindu behar dira horiek erabiltzeko.

Satelite bidezko telefonia. Garestiak. "Ahotsa" erabiltzen da, ez "testua".
Satelite bidezko gailuak, estaldura globalekoak eta bi norabidekoak
Telefono-estaldurarik gabe gelditzeak sortzen duen arazoari aurre egiteko aukera ezin hobea da; gainera, web jarraipena eta meteorologiaren informazioa eskaintzen dute, denbora errealean eta lokalizatuta. **In Reach Mini, GPSMAP 66i, Spot X, fastfind,...**

¡¡ Edozein larrialditarako deitu!!

((112))
SOS DEIAK

COMUNICACIONES EN CASO DE EMERGENCIAS

Hoy en día, el uso de la tecnología a nuestro alcance es esta:

TELEFONÍA MÓVIL. EL MEJOR SISTEMA DE COMUNICACIÓN.

- Se puede hacer la llamada al 112 con cualquier operador aunque no sea el nuestro, incluso sin saldo, pero nunca sin cobertura telefónica.

- APPs de alerta en emergencias. Descargarse la APP 112 SOS DEIAK, https://www.youtube.com/watch?v=rqxcTGwWQ_0

RADIOTRANSMISORES:

- **UHF**: (446 Mhz) Los **PMR (Radio Móvil Personal)** de uso libre sin licencia. limitaciones de alcance, máx. 5 km. **Canal Montaña 7-7**

- VHF: (Frecuencias de 144 a 146 Mhz) Los, comúnmente llamados walkie-talkie, emisores-receptores. Requieren de licencia de radioaficionado, con examen y pago de tasas para usarlos.

Telefonía satelital . Teléfonos caros. Uso de "voz" y no "texto"
Dispositivos satelitales bidireccionales de cobertura global
la alternativa ideal al problema de la falta de cobertura telefónica, además con seguimiento web e info meteo en tiempo real y localizada. **In Reach Mini, GPSMAP 66i, Spot X, fastfind,...**

euskalmendizalefederazioa
FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

¡¡ Ante cualquier emergencia llama!!

Euskal Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren laguntzarekin
Con la colaboración del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco

LARRIALDIAK EMERGENCIAS

Montañas cercanas y lejanas

Gertuko eta urrutiko mendiak

5 EDITORIAL

6 PIRINIOTAKO HIRUMILAKOAK
15 JARDUNALDITAN
Unax Otegi Altolagirre

14 ERROTA ZAHAR MAITEA
BAZTANGO ERROTAK
Mikel Arrizabalaga

20 CASTILLOS QUE DEFENDIERON EL REINO DE NAVARRA
Esther Merino Ruano

26 RESERVAS NATURALES DE CALNEGRE Y CALBLANQUE
Ricardo Hernani

32 MENDITXIKI ARABA. MUELA
Mikel Arrizabalaga

34 FOTOGRAFÍA
Andrés Lekuona Ayestaran · Carlos Mediavilla Arandigoien

36 DAMODAR HIMAL
Iñaki Carranza

44 MONT BLANC
4000KOEN BIDETIK
Iñigo Santxo Monzon

48 TREKKING POR LA SELVA DE "EL PETÉN"
José María Torres

52 DESCUBRIENDO LAS MONTAÑAS DE GALES
Mª Begoña Fernández Díaz · Paulo Etxeberria Ramírez

Eskalada eta btt

58 IKER POU. BI HAMARKADA GAILURREAN
Ioritz Gonzalez Lertxundi

64 MIDI D'OSSAU PEYREGETEKO ERLAITZETIK
Ainhoa Alkain Aiestaran

68 AUSTRALIAKO ESKALADAREN ORTZADARRA
Esti Kerexeta Fernandez

74 CAMINO OLVIDADO Y TRANSCANTÁBRICA EN BTT
Julen Iturbe-Ormaetxe

Actualidad · Berriak

80 ITSASTARRAK MENDI TALDEA. 70 URTE

85 CVCEPHOTO

85 ÁNGEL LANDA

87 MENDI LASTERKETAK
Alberto Mella

88 EMF BERRIAK · NOTICIAS FVM

93 PUBLICACIONES · ARGITALPENAK

PUBLICACIÓN TRIMESTRAL DE EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Se publica desde 1926

JULIO-AGOSTO-SEPTIEMBRE
N.º **280** - 3ª de 2020

Edita: Euskal Mendizale Federazioa
Presidente: Jose Ramón Alonso Rodrigo
Directora: Luisa Alonso Cires

Equipo de Redacción: Gorka Azkarate, Begoña Fernández, Ioritz Gonzalez, Ricardo Hernani, Arantza Lazurtegi, Iván Ruiz, Fernando Tijero
Administración: Gotzone Rodríguez
Redacción, Administración y Publicidad: Julian Gayarre, 50 - 48004 Bilbao
Teléfono: 944 598 102 Fax: 944 598 194
Horario: De lunes a miércoles de 16:00 a 19:00 horas.

Mapas, maqueta y preimpresión: SUA EDIZIOAK
Diseño: Amel Mendizabal [Sua Edizioak]
Imprime: Gráficas Leitzaran
Envíos: Gureak

E-mail: contacto@pyrenaica.com

Depósito Legal: BI-858-1979
ISSN: 0212-5676

Fotografía de portada: Arkaitz Salenques-eko krestan gora · Argazkia: Unax Otegi Altolagirre

© PYRENAICA
La propiedad intelectual y el copyright de los textos y fotografías pertenecen a sus autores/as por lo que, salvo acuerdo expreso con ellos/as o con Pyrenaica, queda prohibida toda reproducción total o parcial de los mismos.

Testu eta argazkien jabetza intelektuala eta copyright-a egileenak dira, beraz egile edota Pyrenaicaren baimenik gabe, debekatuta dago artikuluen zati baten edo erreprodukzio osoa egitea.
www.pyrenaica.com

En navidades, nosotros nos vamos al desierto...

Mauritania

Las ciudades olvidadas de la historia. Tagant y Adrar

[26 de diciembre, 11 días]

Sur de Argelia

Tadrart, el secreto del Sahara

[26 de diciembre, 10 días]

Chad-Ennedi

Viaje al corazón del Sahara, las montañas de Ennedi

[18 de diciembre, 19 días]

Jordania

Petra, Wadi Dana y el desierto del Rum

[27 de diciembre, 11 días]

Trekking

[Chad-Emi Koussi]

Ascensión al Emi Koussi, el techo del Sahara

[18 de diciembre, 19 días]

[Jordania]

Trekking en el desierto de Wadi Rum

[27 de diciembre, 11 días]

[Sur de Argelia]

A pie por el Sahara. Desde Iherir hasta Tatanet

[26 de diciembre, 10 días]

www.banoa.com

banoa Viajes

Ronda de Sant Pere 11, àtic 3ª - 08010 BARCELONA
Tel: 93 318 9600 - e-mail: bcn@banoa.com

Ledesma 10 - bis, 5º - 48001 BILBAO
Tel: 94 435 5119 - e-mail: bio@banoa.com

Sin expediciones, no hay ingresos

QUÍTALES PESO DE LA MOCHILA DE SU VIDA

#AYUDAALPUEBLOSHERPA

Haz tu aportación en nuestro perfil de

migranodearena.org

ERRONKA ZAHARRAK GARAI BERRIETAN

Udaberrian aurre egin behar izan genuen konfinamenduak guretzat benetan garrantzitsua denari buruzko hainbat irakaspen edo lekzio utzi dizkigu, balio handiegia eman izan diogunari buruz zein oharkabean utzi izan dugunari buruz.

Etxean hainbeste egun egon ondoren, gure mendietaz zenbat oroitu garen eta etxetik gertu ingurune naturala izateak duen garrantziaz jabetu gara. Era berean, egiten dugun kalteaz ere konturatu gara. Ehun egunez konfinaturik egon ginen, eta ez du asko ematen baina gure planetak nabaritu egin zuen: kutsadura ikaragarri jeitsi zen, basoak eta mendiak inongo mugarik gabe loratu ziren, animaliak aske mugitu ziren. Gizakiaren presiorik gabe, erasorik gabe, naturak irabazi egiten du.

Beraz, gure mendizaletasunera bueltatuz, guzti hau ezin dugu ahantzi, ez eta oraindik covid-19a gure artean dagoela ere. Lehenbizi, norbanakoaren jarrerak garrantzi handia izaten jarraitzen du, egiten dugunak guztiongan baitu eragina eta jada badakizkigu arrisku gehien duten pertsonengan izan ditzakeen ondorioak. Azken finean, irteerak ongi planifikatzea, leku eta ibilbide jendetsuak saihestea, aterpeetako arauak errespetatzea, dena zegoen bezala uztea eta mendia zaindurik eta guztiok gozatzeko moduan uztea da kontua. Osasuna eta jasangarritasuna elkar loturik daude eta ez dira erronka berriak, berriro hausnarketa bat egin eta sekula ez bezala zaintzea komeni da.

Erronka zaharrei buruz ari garenez, ale honetan egun oraindik bere horretan eta oso eguneratua jarraitzen duen bati eman diogu lehentasuna: pirinioetako hirumilakoak. Zailtasun eta maila guztietarako gailurrak aurki ditzakegu, eta zerrenda hau ahal den denbora gutxienean gauzatzea egitasmo polita izan daiteke bere burua frogatu nahi dutenentzat. Gertuago ere gera gintezke eta Nafarroako Erreinuaren historia berrikusi dezakegu Gaztelako Erreinua babestu zuten gazteluei jarraiki, berauen bilaketak talaia eta tontor ezezagun bezain zoragarriak ezagutzea baimenduko digu, eta egungo egoeran eragina izan duten hainbat erabaki hartu ziren eszenatokietan kokatuko gaitu.

Urrutikoak diruditen mendiek denbora batez zain izango ditugun arren, beraiei buruz idazten darraigu, ditugun oroitzapenez gozatzeko asmoz, irteerak prestatzeko, gure mugetatik haratago dagoena ezagutzeko. Bertan daude eta gure zain daude.

Euskal alpinismoaren aitzindari bat agurtu nahi dugu, Angel Landa hain zuzen. Bere jantzi, arropa eta material tekniko propioa egiten zuen horietakoa, garai haietan ezer ez baitzegoen, Alpeetara motorrez joaten ziren horietakoa, hainbeste miresten zuen Bonattik eginiko bideak errepikatzeko asmoz. Gure historiako protagonista paregabea, ahaztua ez izatea merezi duena.

DIRECTORA DE PYRENAICA

PYRENAICA ALDIZKARIAREN ZUZENDARIA

Luisa Alonso Cires

VIEJOS RETOS PARA NUEVOS TIEMPOS

El confinamiento que afrontamos en la primavera nos ha dejado varias lecciones sobre lo que nos importa de verdad, sobre lo que estábamos sobrevalorando o lo que habíamos descuidado.

Encerrados en casa nos percatamos de lo mucho que añorábamos nuestras montañas y de lo importante que es tener cerca un entorno natural. También nos dimos cuenta del daño que hacemos. Estuvimos confinados durante cien días, no parecen muchos para el planeta pero lo notó: la contaminación disminuyó asombrosamente, los bosques y montes florecieron a su antojo, los animales se movieron libremente. Sin nuestra presión, sin nuestras agresiones, la naturaleza gana.

Así que, de vuelta a nuestros hábitos montañeros, no podemos olvidarnos de todo esto y de que aún convivimos con el virus covid-19. En primer lugar, sigue siendo importante la actitud individual, porque lo que hacemos afecta al colectivo y ya sabemos las terribles consecuencias en personas vulnerables. Se trata de planificar bien las salidas, evitar espacios y rutas concurridas, respetar las normas de uso de los refugios, dejar todo como estaba, en definitiva, mantener la montaña como un lugar cuidado y de disfrute para todo el mundo. La salud y la sostenibilidad están muy ligadas y no son retos nuevos, necesitamos repensarlos y cuidarlos más que nunca.

Hablando de retos antiguos, en este número damos protagonismo a uno que se mantiene muy actual: la ascensión a los tresmiles pirenaicos. Los hay para todos los niveles y completar su lista en el mínimo tiempo posible sigue siendo un buen plan para quienes quieran ponerse a prueba. También podemos quedarnos más cerca y revisar la historia del Reino de Navarra a través de los castillos que lo defendieron del Reino de Castilla; ir en su búsqueda nos acerca a atalayas y cumbres de desconocida belleza, y nos sitúa en escenarios donde se decidió parte del presente.

Aunque parece que las montañas lejanas aún nos esperarán un tiempo, seguimos escribiendo sobre ellas, para disfrutar de su recuerdo, para preparar planes, para conocer lo que hay más allá de nuestras fronteras. Están ahí y aguardan que podamos visitarlas.

Despedimos a un pionero del alpinismo vasco, Ángel Landa. De los que se hacían su ropa y su material técnico, porque no había nada, de los que se iban en moto a los Alpes para repetir las vías que había abierto su admirado Bonatti. Protagonista irrepetible de nuestra historia, merece que no le olvidemos.

PIRINIOTAKO HIRUMILAKOAK 15 JARDUNALDITAN

TESTU ETA ARGAZKIAK

Unax Otegi Altolagirre

Mendia eta mendiarekin zerikusia duten aktibitate gehienak ditu gustuko. Erronka zalea da, baina inguruneaz eta naturaz gozatzeko aukera ematen duten irteera lasaiak ere atsegin ditu. Pirinioak ditu gogoko eta jarduera gehienak bertan burutzen ditu.

Piriniotan 3000 metroen langa gainditzeak zirrara moduko bat sorrarazi ohi dio edozein mendizaleri. Alpeetan 4000 metrotik gora, Andeetan 6000tik gora edo Himalayan 8000 metrotik gora igotzearen parekoa. Unax Otegik, ordea, bere habitat naturala bilakatu du langa horretatik gorakoa. Gailur bakanak igotzen hasi zen bere garaian, eta azkenean gailurrak kateatzen amaitu du, mendizale gehienentzat harrigarria dirudien moduan. Posible al da 15 ihardunaldi soilik baliatuz 212 gailur kateatzea? Unax Otegirekin solasean aritu gara.

Zenbat hirumilako daude Pirineotan?

Galdera hau erantzutea ez da batere erraza. Gezurra dirudien arren, urtetan zehar hirumilakoen erregistroa aldatzen joan da eta orain gutxi arte ez da zerrenda ofizialik egon. 90eko hamarkadan, aurretik egin gabeko zerbait egitera ausartu zen Juan Buyse: hirumilakoak katalogatzeko baldintza batzuk ezarri eta baldintza horietan oinarritutako zerrenda bat osatu zuen, guztira 212 hirumilako biltzen zituena.

Buyse-k ezarritako baldintzen artean bi dira garrantzitsuenak: batetik, bistakoa denez, gailurra 3000 metrotik gora egon behar da. Bigarren baldintzak eztabaida eragin izan du: gailurrak, gutxienez, 10 metrotako goragunea eduki behar du.

Gaur egun, GPS-a bezelako teknologiek, hirumilakoen zerrendan Buyse-k ezarritako irizpideak zehaztasun handiagoarekin aplikatzeko aukera eskaini dute. Horren ondorioz, azken urteetan 212 hirumilakoen zerrendak aldaketak izan ditu, zerrendako tontor batzuk kendu dira eta beste batzuk gehitu, alegia. Gaur egun oraindik ere behin-behineko zerrenda bat dagoen arren, urte askoren ondoren ia segurtasun osoz esan daiteke egungo zerrenda behin-betikoa izango dela.

Nik, dena den, Juan Buyse-ren zerrenda erabili dut, proiektu hau 212 hirumilako biltzen dituen zerrenda horretan oinarrituz.

Zenbat denbora behar da denak igotzeko?

Historian zehar marka ezberdinak egon dira. Mendizale batzuk urtebetean denak igotzea lortu duten arren, hori ez da ohikoena. Hipólito Maeso madrildarraren kasua ere hor dago; 34 egunetan denak igo zituen jarraian, bata bestearen atzetik. Izugarrizko balentria izan zen hura, bera bezalako goi mailako mendizale batek bakarrik egin dezakeena. Istorio hau "Qué bonito son los Pirineos" liburu zoragarrian islatu zuen.

Baina zentzu honetan erreferenterik egotekotan, hori Miquel Capdevila da. 90eko hamarkadan "Los tresmiles en 30 jornadas" liburua idatzi zuen eta bertan, Buyse-ren zerrendako 212 hirumilakoak modu azkarrenean igotzeko modua azaldu zuen. Normalean 30 irteera hauek ez dira urte berean egiten eta jende gehienak 4-5 urte behar izaten ditu, proiektuari burubelarri ekiten badio behintzat. Orokorrean, hirumilako denak igotzeko, konstantzia eta dedikazio handiabehar da, urteetako lana alegia.

Urrunean Balaitous, Arnales-eko gailurretik ikusita. Ekaina bukaeran, Pirineotako mendiek elur ugari izan ohi dute.

Noiz eta nola bururatu zitzaizun proiektu hau aurrera eramateko ideia?

2012 urtean izan zen. Ordurako Piriniotan ibilitakoa nintzen, geroz eta irteera luze eta zailagoak eginaz.

Aurreko urtean Miquel Capdevila-ren liburua eskuratu nuen eta esan beharra daukat liburu horrek sekulako harridura eragin zidala lehen unetik. Nire buruari galdetu nion ea posible izango ote zen marka izugarri hori hobetzea...

Hasera baten erabat ezinezkotzat jo nuen ideia, buruari buelta asko eman ondoren ez nuen ikusten hori hobetzeko aukerarik egon zitekeenik. Pentsa daiteke halako zerbait hobetzeko era bakarra mendian azkarrago ibili eta denbora hobeak egitea dela, hala dio behintzat logikak, baina ez da horrela. Sinestezina dirudien arren, mendian mantsoago ibiltzeak emaitza hobeak eman ditzake eta hortaz konturatu nintzenean ikusi nuen erronka horri aurre egiteko lehen aukera.

Beste kontu garrantzitsu bat jardunaldiaren iraupena da. Guk jardunaldia muturreraino luzatu dugu, egunak dituen 24 orduak erabilita. Gaur egungo teknologia berriek, GPSak eta LED frontalek batik bat, abantaila handia eskaini digute, gauez halako mendietan ibiltzea ahalbidetuz.

Horrela, mapa eta dokumentazio asko aztertu ondoren, 30 jardunaldiak erdira murriztea posible ikusi nuen, etxeko berotasunean behintzat. Posible izango al zen ideia zoro hori gauzatzea? Zalantza horrek indarra eman zigun erronkari motibazio handiarekin ekiteko.

Mendian poliki joanda, azkar joanda baino denbora hobeak egiten direla esan duzu. Horrek ez dauka logika handirik...

Ez, ez dauka logikarik, baina ñabardura txiki bat egitea komeni da: nire irteeratan apenas egiten dut geldiunerik, erritmoa baldintza horretara egokituz. Erritmo altuek tarteka atseden hartu beharra eragiten dute eta konturatu nintzen atseden horietan denbora asko galtzen dela. Hortaz gain, erritmo altuek glukogeno erabilera bideratzen dute energia lortzeko, eta baliabide horrek eragin nabarmenak ditu nekean, azido laktikoa sortzen delako. Poliki joanda ordea, nekea askoz baxuagoa da eta oso erraza da erritmo berdina mantentzea ordu askotan, hasieratik bukaerara arte, atsedenik egin beharrik gabe.

Zeintzuk izan dira aurreikusitako baldintzak?

Proiektua hasi aurretik argi geneukan arau edo baldintza batzuk bete nahi genituela. Garrantzitsuena autoaski izatearekin lotutakoa da, ez bait geneukan depositurik, ezta aterpeek eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzeko asmorik. Erabili beharreko dena, janaria zein mendirako materiala, gainean eraman nahi genuen.

Ondoren, beste baldintza batzuk ere ezarri genituen, eta baldintza hauek proiektua zaildu duten arren, gure mendiarekiko ikuspuntu edo filosofiarekin bat datoz, eta horregatik ez genituen bete gabe utzi nahi:

-Ibilbide zirkularra burutu nahi genuen, haserako puntua eta bukaerakoa toki berdinean duena.

-Jardunaldi naturalak burutu genituen: 00:00-etan hasi eta 23:59-etan bukatzen direnak.

-Irteera puntua, kotxez iritsi daitekeen azken puntuan ezarri genuen kasu guztietan.

-Mendiko aterperik ez genuen ezertarako erabili.

-Jardunaldi guztiak lorik egin gabe eta horretarako beharrezkoa izan daitekeen materialik gabe egin ditugu: dendak, zakuak...

Zeintzuk dira halako irteerak egin ahal izateko beharrezko gaitasun edo dohainak ?

Nik hiru aipatuko nituzke; hirurak dira beharrezkoak, batek huts egiten badu, beste biak edukitzea alferriko bilakatuz.

1. JARDUNALDIA Culfreda-Lustou-Bachimala (2013/09/01)		
3:20		Viados
1	6:56	Culfreda
2	7:07	Culfreda Central
3	7:12	Culfreda NE
4	11:00	Lustou
5	14:25	Pico de la Pez
6	14:34	Pico de Puerto de la Pez
7	15:24	Abeillé
8	15:52	Pico Marcos Feliu
9	16:13	Petit Bachimala
10	16:27	Punta del Ibón
11	16:45	Punta Ledormeur
12	17:09	Gran Bachimala
13	17:35	Punta del Sabre
19:55		Viados
2. JARDUNALDIA Posets (2013/09/17)		
2:10		Viados
14	5:30	Eriste N
15	6:38	Gran Pico de Eriste
16	7:55	Ersite S
17	9:31	Forqueta SE
18	9:41	Pico de la Forqueta
19	10:54	Diente Royo
20	11:19	Pavots
21	11:48	Tuca Forau de la Neu
22	12:49	Pico de las Espadas
23	13:11	Tuca de Llardaneta
24	13:31	Tuqueta Roya
25	13:49	Posets
26	14:28	Diente de Llardana
27	16:45	Bardamina
28	17:28	Pico de la Paúl
29	17:50	Pico Inferior de la Paúl
30	19:46	Pico de los Gemelos
31	20:06	Pico de los Veteranos
22:40		Viados
3. JARDUNALDIA Vignemale (2014/07/26)		
6:25		Barrage D'Ossoue
32	9:44	Pic de Milieu
33	9:49	Grand Tapou
34	10:21	Punta Inferior Tapou
35	10:27	Punta superior Tapou
36	10:49	Monferrat
37	11:07	Pico Central
38	11:18	Cerbillona
39	11:55	Aguja SW Cerbillona
40	13:05	Clot de la Hount
41	13:47	Aguja inferior de Clot de la Hount
42	14:43	Aguja superior de Clot de la Hount
43	15:42	Pique Longue
44	15:54	Pitón Carré
45	16:14	Punta Chausenque
46	16:24	Espalda Chausenque
47	17:57	Petit Vignemale
20:08		Barrage D'Ossoue
4. JARDUNALDIA Vall de Boí (2014/07/31)		
3:30		Cavallers

Clot de la Hount-eko beheko orratza. Hirumilako guztiak igo nahi dituztenek bakarrik igotzen duten orratz ezkutu eta arriskutsua da

Zalantzak eta ezinegona igo behar ditugun hirumilakoei begira. Hor ageri da Costerillou-ko Dorrea, Busye listako gailur zailenetako bat

48	6:30	Punta Alta
49	12:49	Besiberri Norte
50	15:02	Besiberri del mig N
51	15:15	Besiberri del mig S
52	16:35	Besiberri Sur
53	17:05	Comaloforno
54	17:42	Punta Célestin Passet
21:30		Cavallers
5. JARDUNALDIA Pic Long - Neouvielle (2014/09/03)		
3:00		Cap de Long
55	5:00	Estaragne
56	5:40	Campbieil
57	6:56	Pic Maubic
58	7:22	Aguja Tourrat
59	8:45	Pic Maou
60	9:10	Pic Badet
61	9:33	Ajuja Badet
62	10:00	Pic Long
63	11:00	Dent D'Estibère Male
64	11:22	Pic de Bugarret

65	11:33	Pale Crabounouse
66	16:26	Pic des Trois Conseillers
67	16:50	Turon de Néouvielle
68	17:00	Punta Reboul-Vidal
69	19:26	Pic de Néouvielle
70	20:02	Punta Ramougn
22:53		Cap de Long
6. JARDUNALDIA Troumouse-Robiñera (2014/09/12)		
6:00		Troumouse
71	8:48	Pic Heid
72	9:20	Pic de Troumouse
73	9:36	Sierra Morena
74	9:47	Petit Munia
75	9:57	Pico de la Munia
76	12:29	Robiñera
16:45		Troumouse
7. JARDUNALDIA Panticosa (2015/06/20)		
4:20		Baños de Panticosa
77	8:33	La gran Facha
78	13:02	Infierno Occidental

79	13:15	Infierno Central
80	13:21	Infierno Oriental
81	14:10	Arnales
82	15:15	Aguja de Pondiellos
83	15:32	Garmo Negro
84	16:02	Algas N
85	16:08	Algas
86	16:32	Argualas
18:55		Baños de Panticosa
8. JARDUNALDIA Balaitous (2015/06/26)		
4:30		La Sarra
87	9:27	Aguja d'Ussel
88	12:45	Torre Costerillou
89	14:34	Balaitous
90	17:52	Aguja Cadier
91	18:37	Frondella N
92	18:44	Pico de la Frondella
93	18:57	Frondella Central
94	19:54	Frondella SW
23:55		La Sarra

Batetik, arlo fisikoa, mendian gora eta behera denbora luzez ibiltzeko gaitasuna. Horretarako entrenamenduak ezinbestekoak dira eta Piriniotara joan aurretik lan handia egin beharra dago sasoi puntuan iristeko. Altuerak ere eragina dauka, ez baita berdina itsas mailan aritzea edo 3000 metrotik gora. Horretarako, denboraldi hasieran entrenamenduak egin behar dira altueran.

Bigarren, arlo teknikoa. Nahiz eta hirumilakoetan zailtasun teknikoak muturrekoak ez diren, kontuan hartu behar da eskalada 3000 metrotik gora egiten dela, gainean motxila eta material pisutsua izanik, eta mendian ordu asko daramatzazunean. Piriniotan, gainera, orokorrean ez dago paraboltik, eta seguruak norberak ezarri behar izateak ezinegona sorrarazi dezake, arrokaren kalitate eskasa kontuan hartu gabe. Horrela, gradu apaleko eskalada asko zailtzen da, eta komenigarria da 6b maila izatea gero mendian IV+ edo V-eko pausoetan eroso ibili nahi bada.

Azkenik, aspektu psikologikoa. Hau ere lantzea ezinbestekoa da. Irteera hauetan ordu asko igarotzen dira amildegi ertzean eta akatsak egin ezin diren guneetan eta horrek aspektu psikologikoan eragin nabarmena dauka. Prestatuta ez bazaude, blokeo bat gertatu daiteke eta orduan ezingo zenuke aurrera jarraitu. Aspektu hau lantzeko norberaren konfort gunetik ateratzea komeni da, poliki-poliki burua ohitzen joan dadin.

Hiru arlo hauei beharrezko denbora eskainiz gero, edozeinek garatu ahal ditu dohain hauek, nahiz eta ahalegina eskatzen duten, noski.

Nolakoak dira entrenamenduak?

Orokorrean esan liteke urte guztian zehar entrenatu behar dela. 8 hilabete geldirik pasa eta gero bi hilabetetan halako irteera bat egiteko gaitasunak garatzea ezinezkoa da.

Lehen aipatutako 3 atalak landu behar dira. Urtean zehar asko ibiltzen naiz mendian. Irteera hauetan, abiadura baino, distantzia eta desnibela metatzea garrantzitsuagoa da. Intentsitate baxuko saioak izaten dira, 130 pultsaziotik behera egindakoak.

Entrenamenduetan denbora tarte handia eskaintzen diot eskaladari. Astean pare bat aldiz rokodromora joaten naiz eta 2 orduko saioak egiten ditut. Potentzia, indarra eta erresistentzia lantzen ditut. Eskalada fisikoa da, baina eskalada mota horrek garrantzia handia dauka hirumilakoetarako eta entrenamendu hauek emaitza oso onak eman izan dizkidate.

Proiektu eta irteera hauen atzean lan handia dago eta ez da batere erraza sei urtetan zehar behar den motibazioa aurkitzea. Esan liteke, egunean 2 ordu inguruko entrenamendu saioak egiten ditudala, asteko 7 egunetan, urteko 365 egunetan. Gaitasunak kasu gehienetan ez dira berezkoak, norbaitek hori uste bazuen, oso oker dago.

Proiektua, orokorrean, ondo joan al da?

Bai, egia esan, irteera gehienak planifikatu bezala egiteko gai izan gara eta ez dugu eragozpen handiegirik izan horretarako.

Irteera batzuk oso zailak zirenez ezin izan genituen lehen saiakeran burutu, baina bai bigarrenean. Irteera bat lortu ez ezinak, ez gaitu inoiz atzera bota, eta ez dugu egoera hori porrot gisa ikusi. Zerbait atera ez zaigunean, ondo aztertu dugu zeintzuk izan diren arrazoiak eta planteamenduan aldaketa batzuk egin ostean, berriz bueltatu gara saiakera berri bat egitera.

Zentzu horretan, esperientziak ere asko lagundu digu, proiektua aurrera zihoan heinean asko ikasi ahal izan dugulako. Esperientzia berri horietaz baliatuz, geroz eta irteera konplexuagoak egiteko gai izan gara. Proiektua bera, ikasketa prozesu luze bat bezala ikusten dut, era nabarmenean hobetzen lagundu digun prozesu luze bat.

9-10. JARDUNALDIA Perdiguero (2016/08/07-08)		
7:58		Remuñe
95	10:53	Pico Boum
96	12:44	Maupas
97	13:39	Pico Navarro
98	13:56	Pico Rabadá
99	14:02	Tusse de Remuñe
100	14:41	Aguja Jean Garnier
101	15:22	Crabioules Oriental
102	15:38	Crabioules Occidental
103	15:54	Punta Mamy
104	16:17	Punta Lacq
105	17:30	1º Aguja de Lézat
106	17:38	2º Aguja de Lézat
107	17:57	3º Aguja de Lézat
108	18:01	4º Aguja de Lézat
109	18:17	Pic Lézat
110	20:06	Grand Quayrat
111	0:40	Pic des Espijeoles
112	1:14	Belloc S
113	1:18	Belloc Central
114	1:31	Pic Belloc
115	3:29	Pic Gourdon
116	4:55	Pic Jean Arlaud
117	5:21	Pic des Gourgs Blancs
118	5:53	Torre Armengaud
119	6:03	Punta Lourde-Rocheblave
120	6:17	Pic Camboué
121	6:42	Pic Saint Saud
122	7:36	Clarabide Oriental
123	7:43	Pico de Clarabide
124	7:48	Clarabide Occidental
125	8:05	Pico de Gías
126	10:38	Pic Audoubert
127	11:05	Cap Dera Baquo Occidental
128	11:24	Cap Dera Baquo Oriental
129	11:37	Seil Dera Baquo
130	12:06	Pequeño Pico del Portillón
131	13:38	Pic du Portillón D'Oô
132	16:11	Hito Oeste del Perdiguero
133	16:36	Hito Este del Perdiguero
134	16:55	Perdiguero
135	17:35	Tuca de Literola
136	17:47	Pico Royo
137	17:56	Punta de Literola
138	18:17	Aguja de Literola
22:23		Remuñe
11. JARDUNALDIA Coronas (2016/08/25)		
5:45		Puente de Coronas
139	8:00	Aguja Argarot
140	8:23	Aguja Tchihatcheff
141	9:16	Aguja Franqueville
142	10:55	Aguja Juncadella
143	12:20	Aguja Haurillón
144	13:28	Punta Cregüeña
145	14:09	Pico Aragüells
17:05		Puente de Coronas
12. JARDUNALDIA Ordesa (2017/08/12)		
0:00		Col de Tentes

Orokorrean, esan liteke, proiektuak iraun duen urte hauetan guztietan era askotako momentuak bizi izan ditugula: momentu gogorrak, zailak, aspergarriak, zoriontsuak... Mendian dabilen edozeinek izan ohi dituenak. Sekula ez dugu istripurik eduki eta ez dugu laguntza eskatu behar izateko egoerarik bizi izan. Hori nabarmendu nahi nuke, eta horren atzean planifikazio egoki bat dagoela uste dut, norberaren gaitasunen eta irteeraren zailtasunaren arteko oreka egoki bat. Inoiz ez dugu muga kritikorik zeharkatu.

Beraz, hau guztia kontuan edukita, bai, esan liteke proiektua oso ondo joan dela. Atzera begiratuta ezer gutxi aldatuko nuke.

Zein izan da guztietatik momentu gogorrena?

Halako irteeretan momentu gogor asko bizitzen dira, nahiz eta gehienetan ez duten luze irauten, ez irteeran bertan ezta ondorengo oroitzapenetan ere. Gogoan dut Pantikosako hirumilakoak igo nituenean momentu latzak pasa nituela Infierno mendietan arrastaka... Baina guztietan bat aukeratu beharko banu, hamargarren jardunaldian gertatutakoa aipatuko nuke: Perdigueroko hirumilakoak kateatzen genbiltzala (bigarren saiakera zen gainera) Gorka eta ni erabat nekatuta iritsi ginen Oô-ko portura, ordurako 26 ordu generamatzan jarraian geldiunerik egin gabe. Hara iristean, granitozko bloke erraldoi baten atzean eseri ginen iparraldeko haize hotzetik babestu nahian, eta bertan, Gorka erdi lo zegoela, nire buruari galderak egiten hasi nintzen. Beldurra sentitu nuen, ez pauso edo zati delikatu baten aurrean senti daitekeen beldur arina, barneko beldur sakonago bat izan zen.

Momentu batean, egiten ari ginenari ez nion zentzurik ikusi eta aurrera jarraitzea arrazoizkoa zen galdetu nion nire buruari. Krisi momentu bat izan zen. Gaur egun ezin dut ulertu zergatik erabaki nuen aurrera segitzea, baino inoiz ez naiz erabaki hartaz damutuko. Minutu gutxiren ostean, gure egoera emozionala asko aldatu eta irteera konplexu hura aurrera eramateko gai izan ginen.

Eta arriskutsuena?

Saiatzen garen arren, momentu arriskutsuak erabat ekiditea ezinezkoa da. Mendian ibiltzean, nahiz eta xenda batetik joan, beti daude arriskuak eta hauek ezin dira eragotzi. Jarrera eta esperientziak, dena den, arrisku hauek gutxiagotzen asko laguntzen du.

Proiektu honetan, ordu asko pasa ditugu gune delikatu eta arriskutsuetan. Ertzak adibidez halako guneak dira, eta edozein akats eginez gero, bueltarik ez duen erorketa bat gerta daiteke. Gune hauetan erabateko arreta ezinbestekoa da, heldu beharreko harri bakoitza ondo aukeratzea eta hor esperientziak zeresan handia du, azkenean, ibiliaren ibiliz, sena asko garatzen delako. Nekatuta zaudenean, heldulekuak aukeratzeko prozesu hau nekezagoa bihurtzen da eta horregatik, arriskua ere handiagoa izan

146	2:17	Gabietos Occidental
147	2:28	Gabietos Oriental
148	3:01	Tallon
149	4:19	Casco
150	5:00	Torre de Marboré
151	6:47	Cilindro
152	7:03	Pitón SW del Cilindro
153	7:49	Dedo del Monte Perdido
154	8:51	Punta de las Escaleras
155	9:50	Soum de Ramond / Añisclo
156	10:28	Punta de las Olas
157	10:53	Baudrimont SE
158	11:23	Baudrimont NW
159	11:50	Espalda de Esparrets
160	12:44	Monte Perdido
161	15:37	Astazou Oriental
162	16:00	Astazou Occidental
163	17:19	Marboré
164	17:34	Pico Oriental de la Cascada
165	17:50	Pico Central de la Cascada
166	18:04	Pico Occidental de la Cascada
167	18:09	Espalda de Marboré
21:20		Col de Tentes
13. JARDUNALDIA Pica d'Estats (2019/08/13)		
4:35		Àreu
168	9:28	Pic Rodó de Canalbona
169	9:46	Punta Gabarró
170	9:58	Pica D'Estats
171	10:15	Punta Verdaguer
172	10:40	Montcalm
173	11:34	Pic de Sotllo
15:30		Àreu
14. JARDUNALDIA Maladeta (2019/08/24)		
3:00		Llanos del Hospital
174	7:07	Forca Estasen
175	7:51	Torre de Salenques
176	8:09	1º Resalte de Salenques
177	8:24	2º Resalte de Salenques
178	8:49	Margalida
179	9:15	Pico Tempestades
180	9:30	Punta de la brecha Tempestades
181	10:15	Espalda del Aneto
182	10:33	Aneto
183	10:47	Aguja Daviu
184	10:55	Aguja Escudier
185	11:35	Punta Oliveras-Arenas
186	12:11	Tuca del Collado de Coronas
187	12:20	Pico de Coronas
188	12:38	Pico del Medio
189	13:08	Punta d'Astorg
190	13:15	Pico Maldito
191	13:20	Gendarme Schmidt-Endell
192	14:22	Pico Abadias
193	14:46	Pico de la Maladeta
194	15:17	Pico Collado de la Rimaya
195	15:49	Punta Cordier
196	16:12	Pico Le Bondidier
197	16:32	Pico Sayó
198	16:41	Pico Mir
199	16:51	Punta Delmás
200	17:15	Muela del Alba
201	17:22	Diente del Alba
202	18:12	Pico del Alba
203	18:36	Gendarme de Alba
21:03		Llanos del Hospital
15. JARDUNALDIA Maladeta (2019/08/26)		
3:00		Senarta
204	7:46	Tuca de Mulleres
205	10:10	Punta Russel Oriental
206	10:41	Aguja Sur de Russell
207	10:53	Russell SE
208	10:58	Pico Russel
209	11:11	Punta Brecha Russel
210	11:53	Aguja Russel SW
211	14:05	Pico de Vallhibierna
212	14:09	Tuca de Culebres
17:05		Senarta

Coronas-eko zirkuko orratzak igo ondoren, Aragüells-eko gailurrean, Buyse listako 212 hirumilakoen zerrenda itxi nuen. Zoriontasun handiko momentua izan zen eta familiarekin ospatzeko aukera ere izan nuen

daiteke. Momentu horietan zure buruari etengabean gogorarazi behar diozu arreta mantentzea oso garrantzitsua dela.

Orokorrean, esango nuke, gauzak nahiko zentzudun egin ditugula eta erabili behar zenean, soka erabili dugula. Dena den, eta momentu arriskutsu bat aukeratu beharko banu, hori Carrive-ko atakan bizi izandakoa aipatuko nuke.

Posets-etik behera gindoazen eta ataka hori ez genuen inoiz norantza horretan pasa. Oso gune arriskutsua da harria erabat hautsita dagoelako. Piriniotako eskisto gorriko igarobide mitiko horietakoa da.

Gune horietan eskalada baino, lebitazioa egin behar da, eta gentozen zentzuan 20 metroko jaitsiera zaila geneukan aurretik. Jaisten hasi bezain pronto bi harri erauntsi eragin genituen nahi gabe... eta gero, metro batzuk beherago, heldulekuak askatzen hasi zitzaizkidan. Momentu horretan erabateko beldurra sentitu nuen, egoera ez baitzegoen nire kontrolpean. Pixkanaka, eta oso poliki, behera iristea lortu nuen, baina ez nuen inongo lasaiturik hartu Gorkak ere puntu horretara iristea lortu zuen arte.

Argi daukat ez naizela inoiz gehiago horra bueltatuko, norabide horretan ataka hori igarotzea ez da batere komenigarria.

Momentu onak ere izango ziren...

Bai eta asko gainera. Une horiek eman digute urte hauetan guztietan aurrera jarraitzeko indarra. Mendira ondo pasatzera joango ez bagina, irteera hauek ez lukete inongo zentzurik edukiko.

Esango nuke, aktibitate zail edo gogorrenek uzten dutela poztasun handiena. Poztasun sakona deitzen diodana, gero urteen poderioz joaten ez dena. Askotan, eta azken aldian gehiago, momentu puntualetako poztasun azkarrei ematen zaie garrantzia, baina poztasun horiek ez dute denboran asko irauten. Izozki bat jateak edo soineko bat erosteak sortzen duen poztasuna hutsala da erabat.

Poztasuna gainera ez da leku edo momentu konkretu batean gertatzen. Gailurrak askotan pasaleku puntuak besterik ez dira. Ñabardura txikiek egoera animiko askoz sakonagoak sortu ditzakete, gau luze baten ostean eguzkia ikusteak edo egarri zaudenean ura edan ahal izateak izan dezakeen eragin psikologikoa oso sakona da, eta oroitzapen on asko, momentu horietan kateatuta gelditu zaizkit. Beharrak sortutako poztasunak dira, ez kapritxoek eragindakoak.

Normalean, niretzako momenturik onena, aktibitatea egin osteko egunean bizitzen dena da. Maite zaituztenekin elkartu eta egoera seguruan egindakoa oroitzean.

Etorkizunerako beste erronkarik ba al duzu?

Bai, mendizaleek beti dauzkagu erronka berriak buruan, zentzu horretan, ez gara konformaerrazak. Dena den, proiektu hau erronka luze bat izan da eta seguruenik era honetako azkena niretzako.

Ez dut esango nekatuta bukatu dudanik, baina egia da, proiektu honek asko baldintzatu duela nire bizitza sei urtetan zehar, eta horren ondorioz gauza asko egiteari utzi behar izan diot.

Hemendik aurrera aktibitate bakarra duten erronka puntualak bilatuko ditut. Horietako bat Maladetako 46 hirumilakoak jarraian igotzea izan liteke. Errespetu handia ematen duen erronka bat da, baina gure esperientziak, posible izan daitekeela pentsarazten digu. Amets handi bat...

Irteera bakoitzaren kronika eta argazkiak honako helbidean aurki daitezke:
https://www.mendiak.net/viewtopic.php?f=530&t=59857

ERROTA ZAHAR MAITEA

BAZTANGO ERROTAK

Xartolako errota

TESTU ETA ARGAZKIAK

Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

Errota zahar maitea
uraren ertzean,
uraren ertzean da
basati beltzean.
Negar egiten dezu
aleak txetzean.
Ni ere triste nabil
zutaz oroitzean.

Letra: J. M. Lekuona
Musika: X. Lete/L. Iriondo

Errota zahar maitea abestian jasotzen diren hitzek, ezin hobeto islatzen dute Baztango lurretan barreiaturik zeuden erroten ispiritua. Ezaguna da ur-errotek edo eiherek (Iparraldean) edo boluek (Bizkaian), Euskal Herriaren historian izan duten garrantzia, baserrietan jasotzen zen artoa ehotzeko lantegiak izan baitziren urte askoan. Bizimodu zehatz baten lekuko izan diren eraikin hauetako gehienak desagertu, berriztatu edota landetxe gisa berregokitu dituzte. Gutxi dira garai bateko bizimodu horren ezaugarriak erakusten dutenak, artoa era tradizionalean ehotu eta eskuratzen duten irina erabiliz,arto-opil edo talo goxoak egiten dituztenak hain zuzen ere. Garai batean familientzat elikagai zena, gaur egun herri eta hirietako feria edo festetan dastatzeko gutizia bilakatu da. Segidan idatzitako ibilaldiak burutuz gero, Baztango bost errota ezagutzeko parada izango dugu. Denak berriztatuta dauden arren, soilik bietan (Amaiur eta Etxaideko errotak) ikus daiteke ur-erroten funtzionamendua. Bide batez, kokatuta dauden inguruaz gozatzen dugun bitartean, historiaren zenbait pasarte gogora ekarriko ditugu.

XARTOLA ETA AMAIURKO ERROTAK

ZAILTASUNA: Erraza
LUZERA: 13 km
IRAUPENA: 3 ordu 30'
DESNIBELA: 420 m

Arizkungo herriko plazatik abiatuko gara PR-NA 4aren bide-seinale zuri eta horiak jarraituz. NA-2061 errepidetik, Elizondorako norabidean, herritik aterako gara tarte bat Done Jakue bi-

dean barna beteko dugularik. Laster, errepidea utzi eta eskuinerantz joko dugu kanposantuko asfaltozko bidetik. Ezker aldetik jaitsi eta, basoa eta belardia mugatzen duen bidetik, berriro errepidera aterako gara, hau zeharkatu eta zuzen segituko dugu, Baztan erreka harrizko zubi eder batetik gainditutz. Porlanezko bidetik ehunen bat metro aurrerago, zerrategi bat eskuinean utzi eta Elizantzenea landetxera iritsiko gara. Mugertza muinoa inguratuz, zelaigune eder batean kokaturik dagoen Apaioa auzora helduko gara. Herri arkitekturaren adierazgarri diren etxe bikainak ikusi eta, San Frantzisko ermita eta iturria atzean utziz, eskuinera jo eta, harlauzazko bidexka batetik magalez magal eta erreka zokoetan barna, Azpilkuetara helduko gara. Bertan, San Frantzisko Xabierkoaren amaren sendiaren jauregia dago.

San Andres eliza eta frontoia atzean utzi eta, ezkerretik jaitsiko gara Errotaldeko paraje aldera. Berehala, Xartolako erroten ondora helduko gara. Bi errota daude, biak berdinak, bata bestearen ondoan eta orain dela gutxi zaharberrituak. Ura Artzubiko errekatik hartzen dute eta biek konpartitzen dute presa eta ubide bera. Gune hidrauliko ikusgarri eta interesgarria bisitatu eta gero, aurrera segituko dugu bide zabalean zehar. Arribiltoa auzora doan bidea eskuinean utzi eta porlanezko bidetik segituko dugu. Harizti, borda eta Baztangoizako ikuspegi ederraz gozatuz, ondo balizatutako bideak Zuaztoi auzora eramango gaitu. Porlanezko bide zelaitik kilometro eskas bat behar izango dugu Urrasun auzoan dagoen Santiagoko ermitaren ondora ailegatzeko. Hona iristean, Amaiur arte bidelagun izango ditugun Done Jakue bideko gezi horiak PRaren marka zuri eta horiekin tartekatuko dira.

Ura Artzubiko errekatik hartzen dute eta biek konpartitzen dute presa eta ubide bera



Amaiurko errota

Dagoeneko begi bistan izango ditugu Amaiurko herrigunea eta bere gainean nabarmentzen diren gazteluaren aurriak. Galtzada zaharraren arrastoek erakusten digute inguru honek izan zuen garrantzia, Iruñea eta Baiona elkartzen zituen bide nagusia baitzen, XIX. mendea arte Baiona Nafarroako portua izan zen eta. N-121 B errepidera aterako gara eta herriko beheko aldean eliza, errota, iturria eta gurutzea ikusiko ditugu. Hemen, Otsondotik datorren Done Jakue bide banatzen da: Urrasunera, orain arteko bidetik eta San Migel-Bozatera, gero itzulerako erabiliko duguna. Amaiurko errota, XVIII. mendean eraikitako errota dotorea, Baztanen aleak ehotzen jarraitzen duten azkenekotako errotarriak direla esan daiteke (Etxaideko errota ere martxan dago). Beste errota batzuk bezala, hau ere zaharberritu eta landetxe bihurtu dute. Artxiboko iturrien arabera, 1280. urtean, Amaiurko errotak diru-saria ordaintzen omen zion Nafarroako Erresumari, beraz esan daiteke aspaldidanik izan dela errota Amaiurren. Gaur egungoa XVIII. mendekoa da, nahiz eta 1897ko data jarri eraikinean. Hamabost urtez itxita egon eta gero, eraikinaren jabetza herritarren (portzionistak) esku geratu zen eta gerora, Baztango udalaren esku geratu zen errota berritzearen truke.

Herriko karrika nagusian murgilduko gara ezker-eskuin altxatzen diren etxe ederrei so. Herriko goi aldera iristean ermitaren ezker aldetik Amaiurko gaztelurantz zuzentzen den bide zabala igoko dugu. Gora iristean, ikuspegi ederraz gozatu eta gaztelu esanguratsu honen historia gogora ekarriko dugu. Hementxe bertan gertatu zen Nafarroako erreinuaren gertaera garrantzitsu bat. 1522an, Noaingo bataila galdu eta Nafarroako noble eta zaldun batzuk gaztelu honetan gotortu ziren Nafarroako independentziaren alde borrokan jarraitzeko. Gaztelauen armadak gaztelua setiatu eta kanoien indarrez txikitu eta gero, nafar gudariak errenditzera behartu zituzten. Mendeak geroago, Lauaxeta poetak idatzi zuen "*Amaiur gaztelu baltza*" olerkian bildu zuen euskaldunen pasadizo garrantzitsu honen inguruan. Hona hemen hasierakoa: "*Amayur gaztelu baltz ori / -berreun gudari oso sumin- / Zaintzen zaituben zaldun onak / Naparra-aldez egin dabe zin*".

Gure historiaren pasarte garrantzitsu honi errepaso laburra egin ondoren, Arizkunerantz abiatuko gara. Gaztelua atzean utzi, herria zeharkatu eta, sarreran ezkerrerantz hartuko dugu bide-seinaleak erakusten diguten bidean barrena. Kisuko bordaren ondotik pasa eta bide nabarmenetik San Migel ermitaren ondora iritsiko gara. Bozate auzora doan bidea utzi eta berehala iritsiko gara Erdi Aroko eraikuntza sendoa den Urtsuako Jauregi-dorrearen eta Santa Ana ermitaren ondora. Aurrerago Lamiarrita jauregiaren ondotik pasa, Baztan erreka zeharkatu eta Arizkun herrian goi aldetik sartuko gara. Karrika nagusia zeharkatuko dugu eta San Juan eliza eta Klarisen komentua ikusiko ditugu abiapuntura iritsi aurretik, Arizkungo Herriko Plazara hain zuzen ere.

ERROTA BERRI ETA ETXAIDEKO ERROTAK

ZAILTASUNA: Erraza
LUZERA: 6,6 km
IRAUPENA: 2 ordu 15'
DESNIBELA: 385 m

